



GURRUTXAGA ZENDOIA familia

BENTA BERRI etxea Urtsu-Erreka auzoan kokatuta dago.

Joxe Martin Gurrutxaga Irastortza zaldibiarra eta Iñaxi Zendoia Arin 1940an ezkondu ziren Amasan. Iñaxi Amasako *Urruzti* baserriko alaba zen. Joxe Martin artzaina zen, eta negu garaian, bolada batean, Amasako baserri horretara joan izan zen. Handik etorri zen elkarren ezagutza. Sei seme-alaba izan zituzten: lehen hirurak –Maria Axun, Joxemiel eta Pedro Mari– Amasan jaio ziren, eta beste hirurak –Martin, Nieves eta Jexux– Zaldibian.

Amasatik Zaldibira etorri zen familia, eta *Benta Berrin* jarri ziren bizi izaten, maizter. Juan Joxe Gurrutxaga '*Teleitxo*' –Joxe Martinen iloba– zen etxeko jabe. Ardiaren inguruan eratzen zen familia honen bizimodua. Joxe Martinek 150 buru inguruko artaldea gobernatzen zuen. Seme-alaba guztiak, hala ere, oso gazterik hasi ziren lanean.

Udaberrian, apirilaren azken aldean igo ohi zuten artaldea mendira, herri-bidetik. Familia osoa ekainetik irailera izaten zen Aralarko *Mendibilgo* sarroian. Behorreakin igotzen zuten janaria, bi orduko bidea eginda. Artaldeak *Lapata* eta *Martxabaleta* izeneko eremuetan zuen larrea, eta ura *Napar iturriin* edaten zuen. Familiarentzat, berriz, *Ondarretik* ekartzen zuten ura, egunean bi aldiz, hamar minutuko bidea eginez.

Mendian gazta egiten zuten. Egunean gazta bat edo bi, kilotik bi kilo bitartekoak. Eta saldu txabolan bertan –mendizaleei asko– edo enkarguz saltzen zuten. Gazta egin eta hilabetean ontzen uzten zen. Gazta ketzeko haltza berdea erabiltzen zuten.

Sua egin, eta haren kea emanez egiten zitzaion kolore gorritzat gaztari.

Honelakoa zen gazta egiteko prozesua. Ardiak jertzit ondoren, aurrena esnea garbitu edo iragazi egin behar izaten zen; horretarako osinak (asunak) bildu, eta denak norabide berean josten zituzten. Osin sortan geratzen ziren ileak eta zikin guztiak.

Esnea *baño marian* berotu eta zaindu ondoren, gatzagia nahasten zioten. Gatzagia etxeko arkumearena izaten zen. Arkumeak amaren esnearekin eta artirinarekin hazitakoak ziren. Ondo gogortutakoan nahastu eta matoia egiten zen, eskuekin poliki-poliki nahastuz. Ondoren zumitzean jarri eta eskuekin poliki-poliki zapaltzen zuten, harik eta gatzura erabat kendu arte. Gutxi gora behera ordubete-edo behar izaten zen.

Gazta ez ezik, jantziak ere egiten zituzten artilearekin. Horretarako zenbait ardiren ile gozo eta lixoa erabiltzen zuten. Ilea garbitu eta kardatu ondoren, aita haria egiten zuen, eta amak galtzerdiak eta jertseak. Familian jantzi horiek erabiltzen ziren. Koltxoietarako ere erabiltzen zen artilea.


Arkumeak ere saltzen zituzten Ordizian. Saldu ezean, berriz ekartzen zituzten. Artaldeaz gain, oi-loak eta txerriak ere bazituzten.

Ohikoa zen edozein egunetan goizean goiz, egunsentian jaikitzea, ardiak bildu, jertzit, larrera eraman eta gazta egitea, eta ondoren, gosaltzea. Gosaldu ondoren bazkaria prestatu, jan eta siesta egin ondoren, arratsaldean eginkizun berberak errepikatzuten ziren.

Inguruko sarrietako *-Esnaurreta, Arrantsao eta Intxintxao-* artzainak elkartu egiten ziren, eta elkarri laguntzen aritzen ziren hainbat zeregine-tan. Abuztuan, *Igaratzen* egiten zuten festa. Garairik gogorrenak udaberrikoak izaten ziren, elurra, hotza eta bustia izaten zelako, eta unerik gozoenak abuztu eta irailekoak.

Menditik urriaren azkenean jaisten ziren. Barrutia Goierrin zuten, Zal-dibia, Gabiria eta Lazkao artean. Gabiriako *Olazabal* baserrian egonak dira, Lazkaomendin *Iztueta* baserrian ere bai, eta baita Zaldibiko beste baserri batzuetan ere.

Arkumeak otsailean hasten ziren jaiotzen, baina batez ere martxorako, *San Josetarako*. Esnea herrian bertan saltzen zieten herritarrei eta baita arkumeak ere enkarguz, bai herrian bertan eta baita Ordizian ere. Ne-guko unerik gogorrenak arkumeak jaiotzen zirenean izaten ziren, maki-na bat gau galdu behar izaten baitzen.



Joxe Martin Gurrutxaga (aita).



Nieves, Andres Cob, Axun (amona), Maria Axun, Iñaxi (ama), Joxe Miel / Pedro Mari, Martin eta Jexux. (Maria Axun eta Andresen ezkontza, 1967).



Lehengusuak (Miren falta da, lehengusu zaharrena)
 1. Iñaki, 2. Ander, 3. Ibon, 4. Jon, 5. Mikel, 6. Lurdes, 7. Pedro Mari, 8. Iban,
 9. Omar, 10. Maider, 11. Jon Ander, 12. Maite.